



Mariasun Landa

Iurretan




*Turretako herriak, bere bibliotekaren begietatik, zenbait
lore ikusten ditu. Lore koloretsuak dira. Basatiak.
Zein baino zein eder eta ezberdinagoak. Lore horietako
asko landa batean hazten dira. Mariasunenean. Bere
askatasun sortzailean. Bere begiradaren izpi gorrian.
Bizitzarekiko bere lotura berezian.*

Irakurketaren ekintzaren plazera dakarkigute bere liburuek.
Gozamenerako, hausnarketarako, kritikarako leihoak
irekitzen dizkigu bere literaturak. Munduarenganako
ikusmira, gizakiekiko jakingura sorrarazten dute bere
ipuek.

Emankortasun literario hori jaso duten liburuak eskertu
gura dizkiogu lbarretxe etxe hontatik. Zure liburuak, zure
irakurzaletasunaren defentsa, zure duintasun askea.
Eskerrik asko, Mariasun, ematen diguzun guztiagatik. Eta
emango diguzunagatik.

Denok dugu krokodilo bat ohe azpian, eta beste zenbait
mamu lagun bezala. Horieri guztieri maitasunez begiratzen
erakutsi diguzu. Ez da gutxi, gurea bezalako herri txiki
batentzat.

Mariasun



Desde los ojos de su biblioteca, el pueblo de Turreta puede contemplar diversas flores. Son flores de colores. Salvajes. Cada cual más hermosa y diferente. Muchas de esas flores crecen en un campo (Landa, en euskera). En el de Mariasun. En su libertad creativa. En el rayo rojizo de su mirada. En su especial relación con la vida.


Sus libros nos proporcionan el placer la lectura. Su literatura nos abre las ventanas para el disfrute, para la reflexión, para la crítica. Sus cuentos nos despiertan la cosmovisión, la curiosidad por el ser humano.

Desde Ibarretxe, queremos darle las gracias por los libros que han recibido esa generosidad literaria. Tus libros, tu defensa de la afición a la lectura, tu dignidad libre. Muchas gracias, Mariasun, por todo lo que nos das. Y por todo lo que nos seguirás dando.

Todos y todas tenemos un cocodrilo bajo la cama, y otros muchos monstruos a todos con cariño. No es poco, enseñado a mirarlos a todos como el nuestro, para un pueblo tan pequeño como el nuestro.



Landa



Zer diren gauzak: Mariasun bere amarengandik sortu zen, galtzerdirik barik, oraindik urterik ere ez zeukan egun batean. 1949an, Erreterian. Handik aurrera ohikoak eta ezohikoak diren bizipenak izan zituen. Azpimarratzekoa da, bere hitzetan, gaztaroan Parisen eman zuen sasoi. 1969 ezagun eta leherkaritik aurrera lau urte. Baina denbora ez da beti neurri ohikoetan sartzen, eta sasoi harek lau urte baino gerizpe luzeagoa dauka Landa andereñoaren memorian.

Filosofia ikasi zuen Parisen. Letrak ere bai Valentzian. Eta hainbat lanbideren ostean EHUn aritu zen lanean Literaturaren Didaktikako irakasle bezala. Gero erretiroa hartu zuen. Mamu bat erretiratu badaiteke, noski.

Idatzi, idatzi eta idatzi. Generoaren mugak berplanteatu ditu. Errealismo kritikoa sustraitu digu. Haur literatura goratu du. Dozenaka hizkuntzara itzuli da. Beste hainbeste sari jaso ditu. Bere iturriaren emaria ez da eten.

Biografía

Y cómo son las cosas: Mariasun nació de su madre, sin calcetines, alargada como un cocodrilo. En 1949, en Errenteria. A partir de aquél momento tuvo sus vivencias fueros habituales, pero también extraordinarias. Como ella misma subraya, fue muy importante la época de su juventud que pasó en París. Cuatro años, a partir del conocido y explosivo año 1969. Pero el tiempo no siempre se puede encajar en medidas típicas, y aquél periodo proyecta una sombra mayor que cuatro años en la memoria de la señorita Landa.



Estudió filosofía en París. Y letras en Valencia. Y después de ejercer varias profesiones, fue profesora de Didáctica de la Literatura en la Universidad del País Vasco. Y después se jubiló. Si es posible que un fantasma se jubile, por supuesto.

Escribir, escribir y escribir. Ha replanteado los límites del género. Ha hecho que el realismo arraigue en nosotros y nosotras. Ha ensalzado la literatura infantil. Ha sido traducida a decenas de idiomas. Y ha recibido multitud de premios. El caudal de su fuente aún no se ha interrumpido.



Hemen bere bibliografía euskaraz. Itzulitako lanak sartzeko karramato bat beharko genuke. Izan ere, hainbeste hizkuntzatarara itzuli dira bere liburuak!

- Amets uhinak (1982, Elkar)
- Kaskarintxo (1982, Elkar)
- Elisabete lehoi domatzailea (1983, Elkar)
- Joxepi dendaria (1983, Elkar)
- Partxela (1984, Elkar)
- Txan fantasma (1984, Elkar)
- Izar berdea (1985, Elkar)
- Aitonaren txalupan (1988, Elkar & La Galera SA)
- Errusika (1988, Elkar)
- Iholdi (1988, Erein)
- Izeba txikia (1988, Erein)
- Maria eta aterkia (1988, Elkar)
- Alex (1990, Erein)
- Irma (1990, Elkar)
- Kleta bizikleta (1990, Elkar)
- Potx (1992, Elkar)
- Julieta, Romeo eta saguak (1994, Ediciones SM)
- Nire eskua zurean (1995, Erein)
- Ahatetxoa eta sahatz negartia (1997, Elkar)




Bibliografia

- Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean (1997, Anaya)
Amona, zure lholdi (2000, Erein)
Sorgina eta maisua (2000, Elkar)
Elefante txori-bihotza (2001, Anaya)
Galtzerdi suizida (2001, Elkar)
Krokodiloa ohe azpian (2002, Alberdania), (2015, Erein)
Marlene eta taxizapata (2002, Ediciones SM)
Berri ona = Good news (2003, Baigorri Argitaletxea)
Inurri bitxia (2004, Erein)
Marina (2005, Elkar)
Haginak eta hilobiak (2005, Erein)
Festa aldameneko gelan (2007, Erein)
Maitagarria eta desioa (2012, Elkarlanean)
Ipurtargiak paradisuan (2010, Elkar)
Marikanta eta inurriak (2012, Erein)
Inurrien hiztegia (2013, Pamiela)
Elsa eta paradisua (2015, Giltza)
Azken balada (2016, Erein)
Txikiaren handitasuna literaturan (2018, Erein)



Sariak



Lizardi Saria 1982an Txan Fantasma ipuinarengatik eta Haur eta Gazte

Literaturako Euskadi Saria Alex ipuinarengatik 1991n.

2002an, Tolosako Udalaren **“A.M. Labaien Narrazio Saria”** eskuratu zuen Krokodiloa ohe azpian narrazioagatik.

Espainiako Kultura Ministerioaren **Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala** 2003an jaso zuen, Krokodiloa ohe azpian liburuagatik.

2004 urtean, **Donostiako Udalaren Hiritar Merezimenduzko Domina** eta **Errenteria Hiriko Domina** lortu zituen. Urte berean, 2004an, Euskal Editoreen Elkartearen eskutik **Bustintza Saria** jaso zuen, Durangoko XII. Euskal Liburu Azokan gehien saldu zuen idazleetako bat izateagatik.

Iholdi eta Krokodiloa ohe azpian lanak **IBBYren Ohorezko Zerrendan** egon ziren 1992an eta 2006an, hurrenez hurren. Modu berean, Elefante txori-bihotzaliburua 2001eko **Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegiaren White Raven** (Zozo zuria) zerrendan aipatu zen.

2007 urteaz geroztik **Jakiunde Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademiako kide** da.

2008an, **Hans Christian Andersen Nazioarteko Saria irabazteko hautagai** izendatu zuten (Haur eta Gazte Literaturako Nobel Sari gisa ezaguna).

“Mariasun Landa” sariak: Mariasun Landa erreferente bihurtu da Errenterian 2010 urteaz geroztik, Udalak bere izena duen Sari lehiaketa antolatzen baitu. Sari horien bidez, emakumeek egindako ekarpena ikustarazi nahi da, eta horrela, herri-kronika osatu.

Dabilen Elea 2011 saria, euskal liburugintzaren inguruko bost elkarteen eskutik: EEE EIE, APIE-EIE, EIZIE eta IBBY Galtzagorri Elkarte.

2014an Eusko Ikaskuntzaren **Kultura, Arte eta Giza Zientzien Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria** jaso zuen.

2015 urtean Etxepare Euskal Institutuak Atzerriko Unibertsitateetan Euskara eta Euskal Kultura Irakasteko **“Excellence in Basque Studies”** V. Ikastaroa antolatu zuen Mariasun Landaren omenez, Mariasun Landa haur eta gazte literaturako idazlea, Bernardo Atxagarekin batera euskal idazlerik itzuliena baita.

2016an, Galiziako Pen Klubak, **Rosalía de Castro Saria** eman zion Mariasun Landari.

2020an **Idazle Galiziar Unibertsal** izendatu zuen AELG-k, “hizkuntza, kultura eta duintasun nazionala” defendatzeko hautuagatik.

Urte berean, 2020an, urtero ospatzen den **Bilbo Zaharra Euskaltegiko irakurketa jarraituan**, Mariasun Landa omendu zuten bere obrez osatutako “Ipuin hautatuak” bilduma irakurriz.

Errenteriako Koldo Mitxelena Institutuaren **eraikin erantsiak Mariasun Landa izena du** 2022az geroztik.

Emakume egileei ikusgarritasuna ematea helburu duen **Geure Gelatik** liburu azokaren 2023ko edizioan Mariasun Landa omendu zuten.

2023ko **Berdintasunerako Emakunde Saria** .Sari honen bidez «berdintasunari eta emakumeen eta nesken duintasunari» egin dion ekarpena saritu nahi izan dute.

2024an, **BBK Gutun Zuria Bilbao saria** jaso du Mariasun Landak, Juan Mayorga antzerkigilearekin batera.

2024eko ekainean **Goierriko Irakurle Taldeen 6. Topaketan** Mariasun Landa omendu dute. Horretarako, partaide guztiek Krokodiloa ohe azpian irakurri dute, gero Mariasun Landarekin solasteko.

2024an, **Euskaltzaindiako ohorezko kide** izendatu dute.

Ma



Mariasun Landa

2024ko urtarrilak 7/31 Enero

Iurretan

URTARRILEAN ZEHAR DURANTE EL MES DE ENERO

Bibliotekak herriko eskolari eskaintzen dizkion irakurle klub guztietan HH2-LH6 Mariasun Landaren **“Txan fantasma”** liburua landuko da.

URTARRILAK 7 ENERO

Helduen irakurle kluba

Club de lectura para personas adultas

17:00 “El calcetín suicida” + “La fiesta en la habitación de al lado”

18:30 “Galtzerdi suizida” + “Festa aldameneneko gelan”

Dinamizatzailea:

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGI

URTARRILAK 15 ENERO

Paperezko Hegoak haurren irakurle kluba

17:00 “Iholdi” LH3

18:00 “Iholdi” LH4

Dinamizatzailea: PERU MAGDALENA ARRIAGA

URTARRILAK 22 ENERO

Paperezko Hegoak haurren irakurle kluba

17:00 “Txan fantasma” LH5

18:00 “Txan fantasma” LH6

Dinamizatzailea: PERU MAGDALENA ARRIAGA

URTARRILAK 23 ENERO

**18:30 Mariasun Landarekin berbaldia
Charla con Mariasun Landa**

Elkarrizketatzailea / *Entrevistador:*
PERU MAGDALENA ARRIAGA

Hizkuntza / idioma: Euskaraz

Aldez aurretik izena emanda / *Con inscripción previa*

URTARRILAK 27-30 ENERO

Mariasun Landaren ilustrazio tailerra
LH3-LH6ko ikasleentzat

Taller de ilustración sobre Mariasun Landa
para el alumnado de 3-6º de E.P.

Dinamizatzailea: AMAIA EGIDAZU ARRUBE

URTARRILAK 31 ENERO

“TAXIA PARADISURA”

**Haurrentzako ipuin-kontalaria
Cuenta-cuentos infantil**

Hizkuntza · Idioma: euskara

Ordua · Hora: 18:00

Adina · Edad: 4 urtetik gorako haurrak + heldu laguntzaileak

Niñas/os a partir de 4 años + persona adulta acompañante

“TAXIA PARADISURA “

Helduentzako ahozko narrazioa
Narracion oral para adultos

Hizkuntza · Idioma: euskara

Ordua · Hora: 19:00.

Kontalaria · *Cuentista:*
MIREIA DELGADO EXPOSITO

Aldez aurretik izena emanda
Con inscripción previa



Ekintzetan izena emateko

Para inscribirse en las actividades:

94 681 27 26

bibliotekakoekintzak@iurreta.eus
WhatsApeez edo Telegramez

688 86 37 36

*“Bizipozaren landare berriaren
arrastoak sumatzen hasi zen bihotzean,
arintasun harrigarria”.*



Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA